

Donostiak 2020rako bere helburu klimatikoak lortu zituen

2020. urtea mugarri garrantzitsua zen klima-aldaketaren aurkako lasterketan; izan ere, herrialde, eskualde eta hiri askotan berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko planetarako lehen azterketaren data zen, eta Donostia hiriak azterketa hori ondo gainditu du.

2020an isurketak % 20 murrizteko helburua, 2007. urtearekin alderatuta, aise bete da, % 40ko murrizketa lortu baita hiriko emisio globaletan (industriaren emisioak kontuan hartu gabe) zein biztanleko emisioetan. Hala, 2007an biztanle bakoitzak batez beste 5,3 tona CO₂ isuri zituen, eta 2020an, berriz, 3,1 tona biztanle bakoitzeko.

Emaitza positibo horiek arretaz aztertu behar dira; izan ere, isuriak murrizten hainbat faktorek lagundu dute, eta faktore horietako batzuk tokiko eremutik kontrolatzea zaila da. 2020an, zalantzarik gabe, faktore erabakigarria pandemia izan zen, giza jarduera oro har murriztu baitzuen, eta, horren ondorioz, energia-kontsumo txikiagoa izan zen eraikinetan eta garraioan. Bestalde, urtetik urtera gora egiten du estatu mailan iturri berriztagarrietatik sortzen den elektrizitateak, eta, horregatik, elektrizitatearen kontsumoari esleitzen zaizkion emisioek behera egiten dute. Bi faktore horien eragina hain handia izan zen 2020an, ezen tokiko eremuan abian jartzen ari diren beste neurri batzuen ekipsatu baitzuen.

Garraioaren sektoreak igortzen ditu emisio gehienak

Hirian sortzen diren berotegi-efektuko gasen emisio gehienak, guztizkoaren ia bi heren, garraioak eragiten ditu. Horien atzetik daude, urrutitik, egoitza- eta zerbitzu-sektoreen emisioak, beste heren bat. Hondakinen kudeaketak emisioen % 4 baino pixka bat gehiago sortzen du, eta lehen sektorea ez da iristen % 1era. 2020an emisioen murrizketa sektore guztietan gertatu zen, salbuespenik gabe.

Azken urteotan garraioaren emisioen bilakaera egoera ekonomikoarekin lotuta egon da. Horrela, igorpen horiek minimoa izan zuten 2013an, krisiaren eraginez, eta hurrengo urteetan handitzen joan ziren, 2017-2018 aldian balio maximoa lortu arte. 2019an emisioek behera egin zuten apur bat, eta 2020an, pandemiaren ondorioz batez ere, nabarmen murriztu ziren (% 23). Garraioaren emisioen artean, ia bi heren turismoek sortzen dituzte, eta heren bat kamioiek eta furgonetek. Autobusen eta motozikleten emisioak askoz txikiagoak dira.

Zerbitzuen sektorea haziz joan da azken 15 urteetan hirian, eta haren emisioak modu proportzionalan handitu dira; izan ere, 2015etik aurrera, emisio horiek bizitegi-sektorekoak baino handiagoak ziren. Hala ere, 2020an, pandemiaren ondorioz jarduera txikiagoa izatearen ondorioz, zerbitzuen sektoreko emisioak bizitegi-sektorekoak baino zertxobait beherago kokatu ziren. Zerbitzuen sektoreko emisioen murrizketa, neurri batean, bere energia-kontsumoak behera egin zuelako gertatu zen, baina baita, neurri handiagoan, 2020an estatu mailan sortu zen elektrizitatea iturri berriztagarrietatik zetorrelako ere.



Etxebizitzaren sektoreak ere emisioak murriztu zituen 2020an, itxialdiko eta telelaneko hilabeteak gorabehera. Berogailuko erregaien kontsumoak, etxebizitzetako emio gehien erantzulea denak, behera egin zuen, eta jaitsiera horrek, jatorri berriztagarriko elektrizitate gehiago kontsumitzearekin batera, isurketak nabarmen murriztea ekarri zuen.

Azkenik, hondakinen kudeaketarekin lotutako isuriak ere murriztu egin ziren 2020an, hainbat arrazoiengatik: gaika bildutako hondakinen ehunekoa pixka bat igo zen, masan bildutako hondakinen kopurua jaitsi egin zen, eta hondakinak tratatzeko modua ere aldatu egin zen, Donostiako instalazioa martxan jarri zenean.

Udal administrazioaren azken urteetako bilakaera

Udala eta bere erakunde autonomoak eta udal enpresak ere emisioak murrizten ari dira azken urteotan. Udal administrazioaren isuriaren lehen inbentarioa 2010ean kalkulatu zen, eta urte horrekin alderatuta, 2020ko isurketak % 27 txikiagoak izan ziren eta 2021ekoak % 20 txikiagoak. Eraitza hori, alde batetik, eraikinen, argiteria publikoaren eta udal-ibilgailuen flotaren energia-eraginkortasuna hobetzeko hartu diren neurrien emaitza da, eta, bestetik, estatuan eta, neurri txikiagoan, udal-mailan energia elektriko berriztagarriaren ekoizpena handitzearen ondorioa ere bada.

Murrizketa-helburuak

Udalaren eta udalerraren berotegi-efektuko gasen inbentarioen datuek hobera egin dute, baina zehurtiaz epaitu behar dira. Udalaren inbentarioan gertatu den bezala, espero izatekoa da udalerraren inbentarioak gora egingo duela 2021ean, pandemiaren ondoren normaltasunera itzulita. Gainera, argi dago egungo murrizketa-helburuak ez direla nahikoak. Izan ere, Europa mailan asmo handiagoko helburu bat proposatu da 2030erako, emisioak % 55 murriztuta 1990eko isurketekin alderatuta, eta horrek udal helburuak ere berrikusi beharra ekarriko du.

Azkenik, kontuan izan behar da udalerriko emisioen bilakaera, azken 15 urteetan, autonomia-erkidegoan eta estatuan izandakoaren oso antzekoa izan dela, eta urte horiek baino lehenagoko daturik ez dagoen arren, udal-datuak erkidegoko eta estatuko isuriaren ereduari jarraituz estrapolatzen badira, 2007-2022 aldian lortutako murrizketak 1990ean zeuden mailetan jartzen gaituela gutxi gorabehera, eta horrek erakusten digu oraindik ere bide luzea dugula egiteko.